

puntuatua

EULATE + AYESTA
ARTE ETA BIZITZA
ESPERIENTZIA



PUNTUA 228

2020-02-28 EGUBAKOITZA

Aurkibidea

- 4 **Bat-batean** Estitxu Pinatxo
- 6 **Irudiz** Ur putzuaz harago
- 8 **Mundutik** Malta: Valleta, *ma belle*
- 10 **Erreportajea** Artearen magiak
elkartutako ibilbideak
- 20 **Elkarrizketa** Onintze Salazar,
Euskalmet agentziako meteorologoa
- 24 **Osasuna** Hotzeria eta gripea
- 26 **Kirola** Oñatiko eskalada-guneak
birgaitzeko proiektua
- 28 **Adituen esanetan**
Pakita Mateos, adikzioen
prebentziorako taldeko arduraduna
Agipad elkartean
- 30 **Otorduan** Santa Ana jatetxea:
tradizioa nagusi
- 32 **Moda** Kolore morea
- 34 **Motorra** Autoaren mantentzea
- 36 **Gure artistak**
Xabier Martin antzuolarra
- 38 **Kultura** Ain_1 musika taldea bi
kontzertu emateko batu da

- 42 **Gure altxorrak**
Bedita Larrakoetxea apaiza eta
idazlea
- 44 **Gadgetmania**
- 46 **Handitzen, handitzen**
Plazan Bazan
- 47 **Jaioberriak**

IRITZIA
- 3 **Nire txanda** Marijo Deogracias
*Zerikusirik badute botoek eta
zaborrak?*
- 16 **Hainbat aburu** Inazio Arregi
Bisitaldi baten irakaspenak
- 16 **Eztabaida** Hirien erdiguneak:
turisten konkista
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea**
Oskar Elizburu *Denok gara 'gu'*
- 18 **Talaiatik** Iñaki Peña *Zubigileak*
- 40 **Komunikazioa** Unai Etxenhausia
Euskaraz, mesedez

puntua



Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Aitor Izagurre
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal
Zuzendaria
Eneko Azkarate
Erredaktore burua
Monika Belastegi
Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna
Mireia Larrañaga
Kluba eta banaketa
Igone Osinaga
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma
Amaia Martinez de Arenaza,
Maite Igartua
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza
Martin, Amaia Mundiñano

Administrazioa
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua:
SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale

Inprimategia:
Gertu Komunikaziobide SL

PUNTUAK ez du bere gain
hartzten aldizkari honetako
orrialdeetan kolaboratzaileek
adierazitako iritzien
erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zerikusirik badute botoek eta zaborrak?



MARIJO DEOGRACIAS

**EZ DUGU JAKIN ZEIN
DEN ERA HORRETAKO
BILTEGIEN
FUNTZIONAMENDUA**

Zela eragingo du Zaldibarko zabortegiaren krisiak apirilaren 5eko hauteskundeetan? Ofizialki kanpaina martxoaren 20an hasiko da, baina ohikoa izaten da ordura bitartean ere alderdiak ekitaldiak egiten aritzea, asteburuetan batez ere. Oraingo honetan, ordea, badirudi zarata askorik egin barik hasi direla. Zaldibarkoari neurria hartzea kostako da eta horrek markatuko du Eusko Legebiltzarrerako lasterketa. Eta ez alferrik. Zaldibarkoa izan baita bizi izan dugun ingurumen krisirik larriena. Ez baita lan-istripu hutsa. Pertsona bi, Alberto eta Joaquin, desagertu dira, bai; langileak biak, bai; lanean ari zirela, bai; baina gertatu dena lan-istripua baino are larriagoa da. Zaldibar, Ermua, Eibar, Mallabia eta Elgetari zuzenean eragiteaz gainera, gure sistema hankaz gora jarri du. Ez genekien, edo, behintzat, ez ginen kontziente, gure herrietan dauden zabortegietan biltzen dena hainbeste zela; ezta botatzen dena arriskutsua dela ere; ez dugu jakin Zaldibarkoaren moduko zenbat zulo ditugun gure lurraldean sakabanatuta; ez dugu jakin zein den era horretako biltegien funtzionamendua; ez dugu jakin ze negozio den zaborrena; alegia, ez dugu jakin ezer ere, gure etxe ondoan gertatzen den arte.

Gipuzkoan zaborren inguruko eztabaida ez da berria. Baina esango nuke auzia Gipuzkoara mugatu dela orain arte eta Zaldibarkoak beste dimentsio batera eraman gaituela: Bizkaira. Barkatu atrebentzia, baina bai; hemendik oso urruti gertatu zen zaborren kontua: Gipuzkoako Foru Aldundian. Horregatik, hain justu, hasierako galdera, ez baitakit Gipuzkoan bezala Bizkaian ere eragingo ote duen zabortegiarenak. Garbi daukadana da gertatu denak aldaketak ekarri beharko dituela zaborren kudeaketan eta erakundeei dagokien kontrolerako arduran. Beharrezkoa dela koordinazio handiagoa erakunde publikoen artean eta gardentasunean asko hobetu beharra dagoela. Gertatukoari inolako larritasunik kendu barik, kezkarik handienak informazio faltak eragin baititu, eta hori joko-zelai bikaina da gainean dugun hauteskunde kanpainari begira. ■

Estitxu Pinatxo

TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: PAKO SANTXEZ

Oso gaztetatik musika munduan ibili ostean, Berakoak kalean du bakarkako lehen diskoa: *Haize gorri batek*.

Zer pentsatu zenuen zure diskoaren kopia bat esku artean izan zenuen lehen aldian? Lan handia eskatu duen zerbaiten, mimoz egindako zerbaiten, saria dela. Formatu txikiko diskoa da, zazpi kantaz osatuta; horrela egitea erabaki genuen, gaur egun aldatu egin delako musika entzuteko modua: digitalera jotzen da gehiago, eta, diskoa hasieratik bukaerara entzun beharrean, musikari ezberdinen kantuak modu aleatorioan entzuten dira. Estiloari dagokionez, ezingo nuke mota bakarrean sartu, baina harmonietan, moldaketetan eta kantatzeko moduan musika beltzaren kutsua du.

Zuk osatutakoak dira bertako abestiak. Horrela izanda, sentimendu gehiagorekin kantatzen da?

Bai; sortzeko prozesua ikusten duzu, ez zara interprete soila. Hasieratik zuk sortutako zerbait aurkeztean, abestia hobeto ulertzen duzu, hasieratik dakizu zer esan nahi duzun.

Bizitzako bolada tristeak ala alaiak dira hobeak sortzeko? Ezberdinak dira, ez nuke jakingo hoberik dagoen erraten: bizitzaren une alaietan gauza bat aterako da, eta tristeetan, beste bat.

Dama beltzak proiektuarekin ere bazabiltza Euskal Herrian zehar. Iaz ekin genion, eta, izandako harrera ikusita, jarraitzea erabaki dugu. Erronka moduan hartu genuen Mikel Santxezek eta biok: abesteaz gain, nik pianoa jotzen dut eta Mikelek gitarra; eta ni ez naiz piano-jotzailea, ezta bera gitarra-jotzailea ere. Formatu txikiko zerbait egin gura genuen, eta errepertorioa lantzen hastean bururatu zitzaigun emakume batzuei omenaldi txiki bat egiteko ideia; hala, musika beltzean aritutako bost emakumetan zentratu ginen: emakumeok musikan zaila izan badugu, are zailago izan zuten emakume beltz eta askotan pobreak izandakoek. Emanaldian, musika Leire Canok idatzitako testuekin tartekatzen dugu.

Zer aurkitzen diozu musika beltzari? Musika entzutean, txikitatik bilatu izan ditut ahots erreferenteak, eta, zentzu horretan, musika beltzean aurkitu ditut ahotsik onenak eta adierazgarrienak. Entzun eta entzun, hori da orain egitea gustatzen zaidana.

Ia umetatik musikan. Etxekoak saiatu dira beste alorren batetik bideratzen? Ez, kontrakoa errango nuke: saiatu dira ni animatzen eta horretara bultzatzen, konturatu zirelako horrekin gozatzen nuela gehien. 15 urterekin hasi nintzen erromeriak egiten, eta nire aita ibiltzen zen taxilari lanetan alde batetik bertzera.

Zein aho zapore utzi zizun *La voz*-en parte hartu izanak? Esperientzia polita izan zen, niretzat zerbait berria. Aurretik ere ibilia nintzen telebistan, baina Euskal Herrian, plataforma askoz ere txikiagoan. Baina askotan, institutuetan-eta hitzaldiak ematean, esaterako, *La voz*-en inguruan galdetzen didate, nire ibilbidean egin dudana gauzarik garrantzitsuena izan balitz bezala, eta gustatzen zait azpimarratzea ez zela horrela izan: han egon nintzen, disfrutatu egin nuen, eta listo; bizitzak jarraitu egiten du.

Zein izan da ikusi duzun azken kontzertua? Alos Quartet-en kontzertua izango zen, Victoria Eugenia. Badut beste musikarien emanaldietara joateko ohitura. Beran, gainera, saiatzen gara programazio zabala antolatzen, eta gustatzen zait horrelakoetara gerturatzea.

Amesten jarrita, zeure burua zein agertokitan ikustea gustatuko litzazuke? Ez daukat preferentzia berezirik: leku xume eta txikietan jotzea tokatu izan zait; baina baita *Sortuko dira besteak* bezalako proiektu bereziekin Victoria Eugenia edo Kursaal-ean aritzea ere. Bai gustatuko litzaidakeena da agertokia edozein izanda ere beteta ikustea.

Eguna ez bada zuk nahi duzun modua izan, nola emango diozu buelta? Konpainia ona aukeratu, eta ardotxo on bat hartuaz musika entzunda. Egun on bat modu berean ospatuko nuke, baina luzeago. ■■■





Ur putzuaz haratago

ARGAZKIA: ANDONI BODES

TESTUA: MAIALEN REGUEIRO

Oñatiko erdigunetik gertu, Zañartu auzoan, hain zuzen, badago udan bainu-gune natural bilakatzen den ur putzua. Usako du izena eta ur-jauzi txiki baten ondoan dago. Uda giroan, gainera, oñatiarrez eta inguruko herrietako bisitariez betetzen da eta familian zein lagunartean aisialdiaz gozatzen dute. Urtean zehar ere badira herriko txoko hori sarri bisitatzen duten herritarrak, bertan, besteak beste, lasaitasuna arnastu daitekeelako. Usakora egindako bisitetan argazkiak ateratzen dituzte askok, eta hori da, hain zuzen, Andoni Bodes oñatiarrak bere aisialdian egin duena. Bodesek argazkigintza gustuko du eta horrelako argazkiak ateratzea bermatzen dion filtro bat erosi du sarri erabiltzen duen argazki kamerarendako. ■

Valleta, 'ma belle'

MALTA



AINARA BORDES

MALTAN BIZI DEN ARRASATEARRA

ARGAZKIA: A.B.

Badaramatzat jadanik lau hilabete Maltan eta bertako bazterrak ezagutzen hasia naiz. Hemengo herriak ez dira oso handiak eta batetik bestera oinez joateko aukera eskaintzen dute; batez ere, hego-ekialdean kokatuta daudenek. Ni bizi naizen herria hego-ekialdean dago, hain zuzen ere. Msida du izena eta itsasertzeko pasealeku polita dauka ipar-mendebalderantz zein hego-ekialderantz. Ekialderanzko kostatik berrogei bat minutu ibiliz gero, Maltako hiriburura iristen gara: Valleta.

Valletara iristeko aukera anitz daude nire herritik, zein baino zein ederragoak. Kostaldetik gerturatuz gero, harresi handi batzuekin egiten dugu topo. Izan ere, hiriburu osoa fortifikazio edo gotorleku sendo batez dago inguratua, historian zehar jasandako inbasio anitzei aurre egiteko eraikia. Gotorlekuaren lehen egiturak XVI. mendeak dira, Maltako Ordenak martxan jarriak otomandarren inbasio saiakera zapuztuaren ondoren. Urteetan, ordea, hainbat aldaketa jasan ditu, azken handiena XIX. mendean, uharteak britainiarren menpe zeudenean. Munduko hiri gotortu onena bezala deskribatua izan da historian

zehar eta gaur egun Unescoko gizateriaren ondare kontsideratua dago.

Hiriburura iristeko beste aukera Florianara zeharkatzea da. Valletari itsatsirik dagoen herri honek Maltan dagoen bulebar bakarretarikoa eskaintzen digu. Palmondoak erdian, jazz taberna bat eta alboko arkupeak, Florianako bulebar ikoniko honek kapitalean sartzeko sarrera ikusgarria jartzen digu eskuragarri.

Kostaldeko bidea zein Florianako bulebarra zeharkatuta, Valletako ateetara iristen gara. Hiru tritiko osatzen duten iturri modernista ikusgarri batek egiten digu ongietorria. Baina hau hasiera besterik ez da. Plazan aurrera joanez gero iristen gara benetako sarrerara, hiri gotortuaren azken harresira. Harrizko zubi baten gainetik oinez joanda, behean uzten dugu defentsarako urteetan erabili izan den hobia, eta honela, azken paretak zeharkatuta, Valletako kale nagusiarekin egiten dugu topo: Triq Il-Repubblika.

**MSIDA IZENENKO
HERRIAN BIZI NAIZ NI
ETA OINEZ BERROGEI
BAT MINUTURA DAGO
VALLETA, HIRIBURUA**

Kale nagusian, denetarik

Kilometro inguruko oinezkoendako kale honek botere legegilea –parlamentua–, judiziala –justizia jauregia– eta exekutiboa –presidentetza jauregia– biltzen ditu. Horretaz gain, komertzioaren gune garrantzitsua ere bada, baita kulturarena ere. Esaterako, Errepublikakalearen hasieran topa ditzakegu Royal Opera Houseren aztarnak, Parlamentua pasatu eta bertan. Zutik geratzen diren opera etxeko zutoinek historia latza gordetzen dute. II. Mundu Gerran, Valletta gogor bonbardatua izan zen nazien abiazioaren erruz, eta ondorioetako bat Royal Opera House osoaren suntsiketa izan zen. Maltarrek ez dute, ordea, eraikina berreraiki. Horren ordez, II. Mundu Gerraren sarraskia gogoan mantentzeko asmotan, aire libreko antzokia eraiki dute operaren aurrietan. Beraz, gaur egun, hiriburuko kale nagusiaren sarreran eta Maltako Parlamentuaren ondo-ondoan, bonbardatutako Royal Opera Houseren zutoin suntsituak ikus daitezke, antzoki ireki bihurtua. Interesgarria da aurrietan bertan kokatuta dagoen kafetegian kafetxo bat hartzea eta barruko komunetara gerturatzea. Komunak beheko solairuan daude, eta bertara iristeko operaren aurrietan zehar murgildu behar da bat.



Valleta Salinos Ground ate gainean dagoen kalea, Triq il-Batterija eta St Barbara Bastion elkartzen diren gunean.

Esentzia mantentzen duen kalea

Errepublika kale nagusiaz gain, inguruko kale estuagoetan galtzeak enkantua dauka. Strait Streetek, esaterako, jatetxe txiki eta taberna estu pila gordetzen ditu barnean. Astebururo maltarrez betetzen den kalekka honen tradizioa aspalditik dator: Errepublika kale nagusia herriaren aurrean jantziak eta estiloa erakusteko erabiltzen zen bitartean, Strait kale estua bestelako gaiztakerietan ibiltzeko erabiltzen zen. Oraindik ere esentzia bera gordetzen duela dirudi. Strait Streetez gain, badaude kostaldera begiratzen duten eta kolorezko balkoiak dituzten kaleak ere, edota eraikuntza barroko ikusgarriak gordetzen

dituzten karrikak. San Jon kokatedralak Caravaggio margolariaren bizitzako zati bat kontatzen digu. Italiako justiziatik ihesean iritsi zen margolari italiarrak urte bakarra eman zuen uhartean. Bertatik ere ihes egin behar izan zuen, baina haren obra ezagunetariko bat margotzeko astia izan zuen hemen, San Joan bataiatzailearen buru mozketa. Argi-ilunaren erabilera ikusgarrienetariko bat.

EUROPAKO HIRIBURU TXIKIENA DEN HONEK EZ DIE INBIDIARIK GAINONTZEKO HIRIBURUEI

Itsasoari begira, erlaxatuta

Azkenik, kareharrizko eraikinetatik aldendu eta itsasora begiratzuz erlaxatu nahi duenarentzat, bi lorategi politiek aukera hori eskaintzen dute. Lower Barrakka Gardens eta Upper Barrakka Gardensek Maltako portuko bista panoramikoari egiten diote ohore. Maltako Ordenako zaldunen birsortze uneetarako sortutako gune hauek lehenengo musu askoren testigu dira gaur egun.

Orokorrean, esan liteke Europako hiribururik txikiena den honek ez diela inbidiarik beste hiriburuari. Historia, artea, natura eta aisia kontzentratuta dauzkan penintsula honi gaztetako liburuetan agertzen ziren hiri sorginduen usaina dario. ■



JUAN AYESTA (Beasain, 1960)

Tonu hotzetan egindako konposizioa (1979-1980)

Artearen magiak elkartutako ibilbideak

Xabier Alvarez de Eulate eta Juan Ayesta margolarien ibilbideak elkartu egin ziren 1977tik 1982ra bitartean. Erriberrin ezagutu zuten elkar, Eulate frantziskotarra bizi zen komentuan. Ayestak Eulate maisuarengandik ikasi zituen margotzeko teknikak; orain, esker ona erakutsi nahi dio Ayestak, erakusketa batekin.

Testua: **Arantzazu Ezkibel Galdos**. Argazkiak: **Juan Ayesta eta A.E.**



XABIER ALVAREZ DE EULATE (Donostia 1919-Bermeo 2012)

Konposizio abstraktua (1978)

Arantzazu Gaur fundazioak eta Donostiako D'Museoa museoak antolatuta, *Eulate+Ayesta arte eta bizitza esperientzia* erakusketa zabaldu dute Donostiako Santa Marta museoan. Erakusketa "soil" bat baino gehiago dela dio Arrasaten bizi den Juan Ayesta margolari beasaindarrak. Izan ere, erakusketa eta katalogo osatua prestatu dute, Ayestak eta Eulatek izan zuten harremana azaltzeko. "Erakusketa aitzakia da istorioa kontatzeko; orain dela 40 bat urte bizi izandako esperientzia azaltzeko", dio Juan Ayesta margolariak.

Giza erlazioa eta erlazio artistikoa bizi izan zuten, eta hori irudikatzen du erakusketak: "Nik erakusketa bat egin nahi nuen; nolabait, banuen Eulaterekin nolabaiteko zor bat. Berarengandik ikasi nuena erakutsi nahi nuen; eta nik egiten nuena eta Eulatek egiten zuena alderatzeko modua egongo ote zen jakin nahi nuen". 2010. urtean, Eulateren obra katalogatu zuten frantziskotarrek. "Nik kopia bat eskatu nuen, ea koadro horiek gogoratzen nituen ikusteko eta zer gehitu nezakeen jakiteko. Buruan nuena zen ikustea ea posible izango zen hori egitea", dio.

"Xabier Egaña margolariari kontatu nionean erakusketa egiteko nuen asmoa, Egaña esan zidan erakusketa bera baino garrantzitsuagoa zela istorioa kontatzea, izan genuen esperientzia hori kontatzea. Horregatik egin dugu erakusketa eta katalogo ilustratua: katalogoan istorioa kontatzen da, eta argazkiak eta gutunak gehitu ditugu", gaineratu du Ayestak.

JUAN AYESTAK 16 URTE ZITUENEAN HASI ZEN BI MARGOLARIEN ARTEKO HARREMANA, UDALEKUETAN

Eulaterengandik ikasi zuen guztia kontuan hartuta, nolabaiteko "zor emozionala" zuela dio Ayestak. Xabier Alvarez de Eulate (Donostia 1919-Bermeo 2012) fraide frantziskotarra zen, Arantzazuko santutegiko beirate koloretsuak egiteagatik ezagun egin zena. "Margolaria zen, baina ez zuen gogoko erakusketak egitea, eta horregatik ez zen publikoa bere lana eta ez zegoen artisten zirkuituetan sartuta", dio Ayestak.

Oliten ezagutu zuten elkar

Eulateren eta Ayestaren arteko erlazioa ulertzeko, 1976ko udara egin behar da salto. "Udaleku batzuetara joan nintzen, Erriberri [Olite, Nafarroa], 16 urterekin; eta, udalekuetan nengoela, gure begirale batek ikusi zuen banuela marrazteko trebezia. Esan zidan Erriberriko komentuan bazegoela fraide margolari bat. Bisitan eraman ninduen eta hor hasi zen gure harremana. Ordurako, margotzen nuen, baina ikastetxe mailan, ez nuen inolako formakuntzarik", gogoratzen du Ayestak. Erriberriko komentuko Filosofia ikasgela izandakoa zen Eulateren estudioa: "Margolanez betetako estudioa zen. Eulate margolari lasaia zen, bakardadean bizi zena, bere gauzeekin. Nahiz eta bion arteko adin tartea handia izan, 16 eta 56 urte, samur sentitu genuen enpatia; artearen magiagatik, beharbada". Errespetu handia ematen zion gizona zela gaineratu du, eta "beste galaxia batera sartzea" bezala izan zela: "Ondo hartu ninduen, eta margotzera animatu ninduen; zerbait eginez gero bera bisitatzeko baimena eman zidan. Hortaz, nik aukera aprobe txatu

Garaiko artistekin Parisera egindako bidaia

Juan Ayestak aitortza izan zuen margolari moduan 70eko hamarkada amaieran.

Hain zuzen ere, 1977an, *Horia eta urdina, distirak* margolanarekin Arte Ederren gazte lehiaketako hirugarren saria irabazi zuen, pintura alorrean. "Horri esker, 77ko abenduan, Parisera bidaiatzeko aukera izan nuen. Taldean zeuden beste sarituak ziren, besteak beste, Jesus Mari Lazkano bergarra eta Baroja Collet".

Lehen sariak

1979ko abenduan, Artista Nobelen lehiaketako 22. ekitaldian lehenengo saria eskuratu zuen *Horia lagun*



Sarituen bidaia Parisera, 77ko abenduan.

margolanarekin –akrilikoa taula gainean–.

1980ko urrian, aldiz, Arte Ederren gazte lehiaketako VI. ekitaldian, pintura sailean, bigarren saria lortu zuen Ayestak *Erdi Aroko bermiloia*

margolanarekin –akrilikoa taula gainean–. Sariaketa berean, lehen saria lortu zuen, 1981ean, *Dezente hildako natura loreekin* lanarekin; eta 1982an, *Barnealde, deformatutako ikuspegia* lanarekin.

nuen: margotu egiten nuen, eta komentura joaten nintzen egindakoa erakustera". Uda hartan hasi zen erlazioak jarraipena izan zuen ondorengo bost urteetan.

Tripa-truke egindako egonaldiak

1977ko udan ere Erriberriko udalekuetan izan zen Ayesta. 1978an, baina, erabat aldatu zen egoera. "Ikasturte hartan, Arrasateko eskolara etorri nintzen, Ingeniaritza ikastera. Egia esan, Ingeniaritza ez zitzaidan batere gustatzen.

Ikasketak ordaindu ahal izateko lan egiten nuen, eta, urteko lan jardunean, abuztuan izaten genituen oporrak", dio. Ayesta gazteak, baina, Erriberri joan eta Eulateren ondoan ikasten jarraitzeko "gogo izugarria" zuen. "Hortaz, proposamena egin nien Erriberriko frantziskotarrei: tripa-truke hilabeteko egonaldia egitea; hau da, nik egun erdiz eurek esandako lanak egingo nituen eta modu horretan jana eta lo-lekua ordaindu, eta gainerako orduetan margotu egingo nuen". Modu horretan egin zituen bost uda Ayestak. Han igarotako denbora hartan, nahiz eta irakasle eta ikasle tratua ez izan, asko ikasi zuela dio Ayestak: "Arte munduko oinarriak han ikasi nituen. Batez ere, konposizioa eta kolorea ikasi nituen; Eulate kolorearen maisua zen!".

Beti izan du gogoan Eulateretikiko esker ona

Eulate maisuaren ondoan ikasitakoak oso baliagarriak izan ziren Ayestarendako: "Nolabaiteko errekonozimendua jaso nuen. Garaiko hedabideetan egindako elkarrizketetan beti eskertzen nuen Eulatek erakutsitakoa. Egunkari horietako elkarrizketak gutun bitartez bidaltzen nizkion Eulateri; hark esaten zidan bera ez zela nire maisua. 'Zuk ikasi duzu', zioen. Baina hori gauzak esateko heziera ona besterik ez zen. Egia da bion arteko harremana elkarrizketak zirela, ez genituen ariketak egiten... berba egiten genuen, oinarri batzuk esaten zizkidan, eta ni, ondoren, margotzera joaten nintzen. Zerbait eginez gero, erakutsi egiten nion", gaineratu du.

Bost urte haiek igaro ondoren, Ayestak Ingeniaritza ikasketak amaitu zituen Arrasaten. Ingeniaritza alde batera utzi gabe arte munduarekin jarraitzea zen Ayestaren nahia; horregatik, eta nahiz eta Arte Ederretako ikasketarik izan ez, arte munduko beka bat eskatu zuen Jaurilaritzan: "Lehiaketetan nuen ibilbideari esker beka eman zidaten. Hala, Florentziara joan nintzen graduondokoa egitera, diseinu arloan. Beka hura beste bi urtez luzatzeko aukera izan nuen; modu horretan, bi urte gehiago egin nituen Italian; Milanen, konkretuki". Italian egindako hiru urteko egonaldian, Ayestak deskubritu zuen diseinuaren arloak batzen zituela berak zuen formakuntza teknikoa eta artistikoa: "Industria eta artea



Ayesta, Arantzazuko beiratearen ondoan.

**AYESTAK TRIPA-TRUKE
EGIN ZITUEN UDAKO
EGONALDIAK
ERRIBERRIN: LAN ETA
MARGOTU EGITEN ZUEN**



Eulate, lantegian, 2006ko maiatzaren 5ean.

batzen zituen. 90eko hamarkadara arte, hemen ez zegoen diseinu industrialik; hona etorri, eta diseinu industrialaren arloko kooperatiba bat sortu nuen. Hori izan da nire profesioa 32 urte luzez".

Plano artistikoan, aldenduta

1986an itzuli zen Ayesta Italiatik, "estimulu berriak jasota". 1990. urtean, berriro ere Erriberriko komentura joateko gogoia sentitu zuen: "Hara joateko beharra, nostalgia, nuen. Deitu nuen komentura eta hara joatea planteatu nion Eulateri: astebete

egin nuen han". Astebeteko egonaldi hark, baina, balio izan zion bien ibilbideek hartutako norabideak ezberdinak zirela ikusteko. "Ordurako, nire margotzeko modua aldatuta zegoen; eboluzionatu egin nuen, beste estimulu batzuk jaso nituen Italian, beste errealitate batzuk eta beste mugimendu batzuk ezagutu nituen eta gure ibilbideak banandu egin ziren. Orduan konturatu nintzen nik egiten nuena ez zela motibagarria berarendako eta berak egiten zuena ere ez zela motibagarria niretzako. Ez nituen estimulu berriak deskubritu, eta oso urrun geunden plano artistikoan". Hortaz, euren arteko harreman artistikoa bukatu egin zen 1990. urtean; hala ere, harreman pertsonalak jarraitu egin zuen: "Eulate bisitatzeko jarraitu izan nuen, eta 2011n egin zioten omenaldian ere izan nintzen".

Urte haietan izandako harreman artistikoaren erakusle diren hainbat objektu gordetzen ditu Ayestak: "40 urte ondoren gorde ditut 16 gutun, Eulatek oparitutako liburu bat, 1977an margotutako erretratu bat...". Esanahi garrantzitsua duten objektuak direla dio Ayestak: "Garai hartako gutunak irakurrita konturatu naiz ze garrantzi zuen idatzi zidanak, berak animatu egiten ninduen. 'Margotu, ez zaitez desanimatu...', esaten zidan".

Nork bere lengoaia zuen

Plano artistikoari begiratuta margolari bakoitzak bere lengoaia zuela nabarmendu behar da. Eulate kolorearen eta konposizioaren maisu zen, eta nahiz eta margolari moduan ez zen ezagun egin –oso zirkuitu txikian ezagutzen zuten–, "margolari handia" zela dio Ayestak. "Arantzazuko Santutegiko beirateak egiteagatik da ezaguna Eulate. Margolana ez izan arren, beirate horiek kolorearen errepresentazioa dira", gaineratu du Ayestak.

Zabaldur berri duten erakusketak argi erakusten du margolari bakoitzaren bidea nolakoa zen elkartu aurretik, ezagutu ondoren Ayestaren lanak hartu zuen ibilbidea –koloreari eta konposizioari dagokionez– eta ondoren nola bakoitzak bere ibilbidea jarraitu zuen. "Garai hartako nire koadro bat eta Eulateren koadro bat hartuz gero, oso antzerakoak direla konturatu gaitezke.

EULATE ETA AYESTA MARGOLARIAK: PLANO ARTISTIKOAN NORK BERE LENGOAIA ZUEN

Kopiatutakoak direla dirudite; baina, ez, ez ziren kopiatutakoak, nik Beasainen margotutako koadroak ziren. Baina alderaketa hori erakutsi nahi dut; izan ere, inspirazioa berarengandik hartzen nuen".

Koloreaz eta konposizioaz gain, lan egiteko modua ere ikasi zuen Ayestak Eulaterengandik: "Taula gainean, material oso merkeekin egiten zuen lan. Hori ikasi nuen berarengandik. Olio-tutu batzuk erosi nituen, eta sei bat koadro egin nituen olioan; ez dut gehiagorik egin. Erakutsi zidan pote industrialekin, pintura akrilikoarekin, egurrezko oinarriaren gainean margotzen. Izan ere, nik ez nuen olio-tututxoak erosteko dirurik", azaldu du Ayestak.

Eulatek 2000. urte inguruan utzi zion margotzeari, "mugikortasun arazoengatik", dio Ayestak. "Errespetu handiko harremana izan zen izan genuena; niretzat, beste galaxia batean zegoen margolaria zen, bere estudioan nengoenean ez nintzen argazkirik egitera ausartu ere egiten. Horregatik, hain zuzen, ez dugu argazkirik elkarrekin". Gainera, Ayestak nabarmendu du Erriberrin egon ziren urteetan nork bere estudioa zuela, ez zutela elkarrekin margotzen. Harreman pertsonalak jarraitu egin zuen, eta 2011n Arantzazun Eulateri egin zioten omenaldian izan zen Ayesta. Nestor Basterretxea artista handia eta Edorta Kortadi arte komisarioa izan ziren ekitaldi hartan, besteak beste.

Eulate+Ayesta arte eta bizitza esperientzia bat erakusketa apirilaren 19ra arte egongo da zabalik Donostian. ■■■

BERRIA
NUEVO

abiato 2.0

Autobideetako zein aparkalekuetako hasierak irekitzen dituzte

Bertsio eguneratua eta potenteagotua

Eguneko deskontu-sistemarekin jarraitzen du

Orain Frantzia osoan ere bat

Gero eta autobide eta aparkaleku gehiagorik

GOGOAN IZAN
abiato 2.0 BERRIAK
ESKAINTZEN DIZUN GUZTIA!

BIDEGik teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat ateratu du gipuzkoar guztientzat.

Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...

Abiatu gailuaren erabiltzailea izan ala ez, dagoeneko abiatu.bidegi.eus-en eska dezakezu gailu berria.

Eskatu!

BIDEGI

Informazio gehiago: info@bidegi.eus | 943 105 106
GI-20 - KP / PK 14,800 - Arizeta-Usurbil



INAZIO ARREGI

Bisitaldi baten irakaspenak

Negu hotzarekin eta elur artean utzi zituen bere aberria, senitarte, lagunak eta lana, Oñatira etortzeko bere formakuntza akademikoan sakontzera.

Nekez koka zezakeen mapetan herri hau. Ezin jakin ze kultura, ze jendarte klase aurkituko zituen erabat arrotza zitzaien paisaia berrian.

Hala ere, gaztetasunaren ausardiak eta lotsagabetasun neurtuak jauzia ematen lagundu zioten. Hamaika muga gainditu hegazkinez eta gurera iritsi zen joan den urteko martxoan. Harrezkerokoak oñatiar askok ezagutu izan dituzte. Bere alaitasun itsaskorra eta jarrera baikorrak opari bat izan dira jende askorentzat. Bizikletan ibiltzen ikusi dugu eta igerilekuan ere ezagun egin zen. Hau ez litzateke aipagarria

izango ez balitz emakumeentzat debekatutako jarduerak direla bere gizarte.

Bera ezagutu aurretik inork galdetu izan balit zer den integrazioa, ez nuen erantzuten jakingo. Orain esango nioke, ba, horixe, Shaziak egin duena, herriko ohiturak errespetatuz, bizitza eta jarduera desberdinetan parte hartzea, izan Korrikan, izan herriko erreken garbiketan, edota Hotz-Oñatin GKEarentzat diru ekarpenak biltzen plazan ogitartekoak salduz. Guztia bere

**HERRIKO OHITURAK
ERRESPETATUZ,
BIZITZA ETA JARDUERA
DESBERDINETAN PARTE
HARTU DU SHAZIAK**

izaerari uko egin gabe, bere erlijio, kultura eta jendartearen balioei eutsiz.

Ez hori bakarrik, ahalduntzea, hainbestetan erabiltzen den beste kontzeptu hori ere desberdintasunean ere existitzen dela ikasi dut. Neska sinestun bat aurkitu dut, erlijiotik, beren kultura zaharretik eta familiaren balioetatik edan duena, hargatik lotsatzen ez dena, eta horiek guztiak kontuan izanda ere emakumeen eskubide berdintasunaren alde borrokatzea posible dela frogatzen duena.

Ikasi dut sarri ikuskera homogeneizatzaile batetik erabiltzen ditugun bi kontzeptu horiek hainbat adiera dituztela, ia pertsonak beste. Mila esker zuek ikasteko eskaini didazun aukeragatik. ■

EZTABAIDA

Hirien erdiguneak: turisten konkista

Edinburgon, adibidez, erdiguneko etxeen %29 alokairu turistikoak dira. Bartzelonan, esaterako, auzo turistikoenetan alokairua %7 igo da eta salerosketa %19 igo zen.



MARIÑE JAUREGI
HERRITARRA

"Turista moduan gaudenean, beharbada, ez gara kontziente zenbaterainoko kaltea egin dezakeen alokairu turistikoak hiri bateko herritarrengan, eta haien egunerokoa zenbat alda dezakeen. Gure bidaiatzeko modua aztertu egin beharko genuke, denon onerako".



MADDI GURIDI
BARTZELONAN BIZI DA

"Turismoa arazoa da Bartzelonan; auzo batzuetan ezinezkoa da etxebizitza bat aurkitzea, denak turistendako bideratuta daudelako. Nire kasuan, hona bizitzera etorri nintzenean, denbora behar izan nuen pisu egoki eta prezio onekoa aurkitzen."

XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



ERREMATEA



OSKAR ELIZBURU

Denok gara 'gu'

Aurreko baten, *Gu* izeneko artikulua irakurri nuen, *euskaldun berri* batena. Mezua argia zen: *Noiz arte deitu behar diguzue horrela?* Izan ere, euskaraz eskolatu eta unibertsitateko prozesu osoa euskaraz eginda ere, *euskaldun berri* marka jartzen zaie erdaldun jaiotakoei. Eta galdetzen zuen, haserre samar: *Noizko labeldunak?*

Bestalde, hor dabilta Aramaion hainbat jubilatua euskaldun *Euskara hobetzen* ikastaroan; zintzo demonio, astero bi ordu, batuarekin borrokan – ederto pasatzen dutela diote, baina!–, testuak egokiago ulertzeko eta idazteko bidea egiten, euskararekin gozatzen.

Euskaldun dira batzuk eta besteak, C2 mailadunak zein ikasten ari direnak, eta ahal duten neurrian erabiltzen dutenak, edota ulertzen dutela esanda euskaraz egiteko bidea ematen digutenak. Euskal komunitatea, *gu*, denok gara eta ez daukagu bat bera ere baztertzeko aukerarik, denok ezinbesteko garelako.

Ekin euskaraz konplexurik gabe, izan enpatikoa, eman babesa eta elkarrekin hizkuntza egokitzeko pazientzia hartu. ■



MAIDER ARSUAGA
BARTZELONAN BIZI DA

"Alokairuan etxe bat aurkitzea, erdigunean, ia ezinezkoa da hemen, turistentzat dira gehienak; eta, bestela ere, prezioak oso altuak dira. Ondorioz, kanpoaldeetara joaten ari dira bertako betiko biztanleak, etxebizitza duin eta eskuragarrien bila".



ALICIA ETXANIZ
LANGILEA

"Gazteentzat etxebizitza gutxi daude, eta are gutxiago eskuragarri. Hiri handietan arazo larria da, baina gurean ere zail dago alokairuan etxebizitza bat prezio onean aurkitzea. Kasu honetan turismoaren eraginik ez bada ere, konponbidea behar da".

Zubigileak



IÑAKI PEÑA BARNEKO MEDIKUA

Lubakietatik saltoka dabilta zubigileak, deitu *outsider*, deitu ahuntz. Bakearen bila, akaso. Guztion Alardea taldeak elkarriketa eskatu du Hondarribiko gatazka konpontzeko. *Sit and talk*, alegia.

Erreterian, bestela, eredugarria da Julen Mendoza alkateak urteotan egindako lan aitzindaria. Leku hobeagorik nekez topatu zitekeen Jon Sistiagak eta Alfonso Cortes-Cavanillas-ek egindako *Zubiak* dokumentala aurkezteko. Zubi guztiek arrakalak eduki ditzakete, pasarte batean irudikatu duten moduan. Baina pertsonak alde batetik bestera igarotzeko balio duten bitartean, ongietorriak dira. Lan honen protagonista nagusiak Maixabel Lasa eta Ibon Etxezarreta dira. Ibonek parte hartu zuen Juan Mari Jauregiren aurkako atentatuan, kartzelan dago Langraitzen hori dela-eta, eta Maixabel Juan Mariren alarguna da. Biktimen eta

borreroen arteko topaketen partaideak izan ziren, *encuentros restaurativos* izenekoetan. Horrekin lotuta, *damua* eta *barkamena* hitz higatuak dira, konnotazio ez hain positiboak dituzte eta saihesten saiatzen gara. Maixabelek dokumentalean barkamena beste modu batean adierazten du: bigarren aukera bat eman.

Elkarbizitzaren eta sasoi berrien inguruan, zoragarria iruditu zait Samara Velte kazetariaren aitorpena *Berria*-n: "Nik defendatuko dut Senper pertsonaiak euskal politikara ekarri duen irekiera: gutako askori lehenbiziko aldiz otu zaigu PPko guap(o)ekin oheratzeko aukera. Garai berriek horretarako ez badute balio,

**ARIKETA HAUEK
MINORITARIOAK IZAN
ARREN, UGALTZEN ARI
DIRA MOTA HONETAKO
PROPOSAMENAK**

nahiko garai berri eskasak iruditzen zaizkit".
Mundiala.

Azken aste hauetako mugimenduen artean, *Azpeitia 1936-2017* lana azpimarratzekoa da. Giza eskubideen urraketa guztiak biltzeko lau liburu argitaratu dituzte Azpeitiko Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarateak. Ez da erraza norberaren lubakitik ateratzea eta besteen istorioak eta bizipenak entzutea. Badaude puztutako memoriak, baimendutakoak eta mediatikoak. Eta isildutako, debekatutako eta ahaztutako oroitzapenak.

Andoaingo Martin Ugalde Foroan, Naiara Zamarreñok, Eneko Etxeberriak, Maria Jauregik eta Nagore Otegik enpatia ariketak proposatu dizkigute, teoriatik baino gehiago, praktikatik. Ariketa minoritarioak izan arren, zaratak zoritxarrez agindu arren, ugaltzen ari dira mota honetako proposamenak. Siglen gainetik, hizkuntza berean. Posiblea bada.



20. urteurrenean, Fernando Buesa eta Jorge Diez oroitzeko ariketa proposatu ziguten Gasteiztik, testigantzak bilduz. Beste aukera on bat gure *bertangoxo*-tik ateratzeko. Ausardia baino gehiago, bihotz apur bat behar da zuhaitza bizirik mantentzeko. *Sustraietan elikadura, kimuetan itxaropen.* Mitin politikorik ez, erruki garaiak dira.

Eta otsailaren 25ean, *S(u)a minetik bakera* eraman dugu 8.000ko batera. Dolu kolektiboak eta hiri martiriak aipatzen ditugunean, Bagdad, Damasko, Sarajevo eta Hiroshima oroimen kolektiboan daude. Eta Gernika. Horregatik hain garrantzitsua izan da guretzat hain leku sinbolikoan egon ahal izatea, urteak lanean daramatzan Gernika Gogoratuz elkartearen eskutik eta Maria Jauregik eta Jon Maiak lagunduta. Protagonistak, Sandra Carrasco eta Olatz Etxabe. Narratzaileak, Koldo R. Bengoa eta Naia Egiluz. Musika zuzenean, Mudoh-ren eskutik. ■

"Epe laburreko iragarpen zehatzagoak egiten dira orain"

ONINTZE SALAZAR EUSKALMET AGENTZIAKO METEOROLOGOA

Eskoriatzako Zientzia Zikloaren barruan egindako 'Jakinduriek mundue erreko dau' ekimenean parte hartu zuen meteorologo bilbotarrak zapatuan. Bertsolaritza eta zientzia batzen dituen ekitaldiak zientzia herritarrei gerturatzea du helburu. Zaldibar antzokia lepo bete zen ekitaldiaz gozatzeko.

Testua: **Arantzazu Ezkibel Galdos**. Argazkiak: **Josu Bilbao**.

Telebistan eguraldi iragarpenak egiteagatik da ezaguna Onintze Salazar. Fisikan lizentziaduna, Atmosferaren Fisikan espezializatua da, eta 2002az geroztik Euskalmeten egiten du lan. Dibulgazioren beharra nabarmendu du Salazarrek.

Zientzia jendeari gerturatzea da ekitaldion helburua?

Bai; uste dut erabat garrantzitsua dela horrelako ekitaldiak antolatzea. Askotan, jendeak uste du zientzia gauza zaila dela, ulertuko ez duten zerbait dela; eta batzuetan, badago halako erreakzio negatibo bat, mundu horretan ez sartzeko, edo horrelako hitzaldietara ez joateko. Guk lortu behar duguna da zientzia modu gertuagoan hurbiltzea jendeari; gure bizitzako ia arlo guztietan dago zientzia eta, askotan, zientziaren inguruan gehiago jakiteak posible egiten du erabaki hobeak hartzea. Horretarako, zerbait gehiago jakin behar dugu eta, hain zuzen, horretarako dugu dibulgazioa. Zientzia dibulгатzea oso garrantzitsua da gaur egun, eta holako ekitaldiek lagundu egiten dute bide hori egiten. Guk kontatzen dugun hori jendearengana iristea da helburua, eta uste dut oso formatu

erakargarria dela hau, bertsoak eta zientzia batzen dituelako. Horrelako ekitaldietara hurbiltzen diren asko datoz bertsozaleak direlako, beste batzuk zientzia gustuko dutelako... Azken finean, horrelako ekitaldien helburua da oso ondo pasatzea, eta guk ikusten dugu jendeak ondo pasatzen duela. Ondo pasatzeaz gain, ideiarekin bat ere eramaten badute etxera edo kuriositatekin bat pizten bazaie, hobeto.

Denok dugu barruan meteorologo bat; baina nabarmendu behar da meteorologia zientzia dela.

Zientzia bat dago atzetik, baina badakigu, nolabait, ez dela zientzia zehatz bat. Iragarpenak ez dira ehuneko ehunean fidagarriak. Horrekin jokatzuz, edonork edonondik informazioa atera dezakeela uste da, baina atzetik zientzia dago, eta lan handi. Jende asko dago lanean gero eta zerbitzu meteorologiko hobeak sortzen, guk iragarpen onak egin ahal izateko; eta, noski, hor zientzia dago. Oso gai erakargarria da, denok bizi dugun zerbait delako: mendira baldin bagoaz, aisialdia... eguraldiak eragina izango du. Egoera kaskarren bat datorrenean ere garrantzi handia dauka: jakin behar dugu zer egin egoera bakoitzean, eta hor zientzia dago.



Onintze Salazar meteorologo bilbotarra.

Hainbat urte diharduzu Euskalmeten lanean. Iragarpenei dagokienez, nolako aurrerapenak egon dira urte horietan?

Gertatzen ari denari buruzko datuak izatea oso garrantzitsua da, gero iragarpen hobeak egiteko. Ezagutu behar dugu gure lurraldea, zelako egoerak bizi ditugun, eta abar. Datu gehiago ditugu eta hobeak, eta, gero eta urte gehiagotako datuak ditugunez, hobeto ezagutu dezakegu daukagun egoera eta klima. Bestetik, guk ditugun eredu matematiko edo meteorologikoetan aurrerapen izugarriak egin dira azken urteetan. Orain, gai gara epe laburreko iragarpen zehatzagoak egiteko, fidagarritasuna dezente handitu da, baita epe ertaineko iragarpenak egiten ditugunean ere; hau da, laugarren egunetik zazpigarren egunera bitartekoa. Oraindik ere ez dira oso onak, baina bai orain dela 10-15 urte baino askoz hobeak. Gero eta erreminta hobeak ditugu lan egiteko, eta fidagarritasuna irabazten da. Abisu sistema hobetu egin da, eta hori ere erreminta ona da.

Ardura handia da eguraldiaren iragarpena egitea?

Bai, ardura bada, baina norbaitek plan bat egin behar duenean ze eguraldi egingo duen galdetzean, nik beti esaten diot nik ez diodala esango plana egin edo ez, nik esango diot zein den espero den eguraldia, eta ze aukera dauden. Jakin dezakegu espero dela euria egitea, baina ezin dut ziurtatu seietan egingo duen edo ez. Guk beti ematen dugu daukagun iragarpenik onena, eta horren arabera jendeak jakin behar du zelan erabili informazio hori. Nabaritu dut jendeak badakiela eta ulertzen duela iragarpenen fidagarritasuna ez dela ehuneko ehunekoa. Inork ez dit ezer leporatzen; justu kontrakoa. Jendeak eskertu egiten du iragarpena ematea.

Baserritar batek izan dezakeen jakinduria bateragarria da zientziarekin?

Gertatzen dena da baserritar batek izan dezakeen jakintzia horrek balio diola bera bizi den lekuan aplikatzeko. Berak ikusten du nondik datorren haizea egun horretan, nolako hodeiak dauden zeruan; eta, noski, hor atzean badago oinarri zientifikoa. Gertatzen dena da baserritarrek ez dakiela hori dagoela atzetik, ikusten duena da esperientziak ematen diona. Zer geratzen da? Hori ezin dela orokortu. Toki konkretu batean dagoen egoera ezin da orokortu. Zentro meteorologikoetan

egiten duguna da orokortu; baina, noski, baserritarrek duten esperientzia besteok ez dugu lortzen, nahiz eta tramankulu asko eduki! **Gaur egun, denon ahotan dago klima aldaketa. Ze iritzi duzu horri buruz?**

Datuak hor daude, ez dago interpretatzeko tarterik. Planeta berotzen ari da eta berotzen ari da guk egiten dugunagatik, atmosferara botatzen ditugun berotegi efektuko gasengatik; batez ere, CO₂agatik. Hasiera batean, oraindik ez zegoen batere argi gu ginen errudunak edo zenbaterainoko ardura genuen; baina, gaur egun, ez dago horren inguruko zalantzarik. Datuei begiratuta, hori ikusten dugu. Euskal herriko datuekin ikusten dena da udako tenperatura igo egin dela; agian, urte osoko tenperaturaren ez da hain nabaria, baina azkeneko urteetan udako tenperatura igo egin dela datuek esaten dute eta itsasoko maila igo egin dela ere datuek esaten dute.

Eguraldiari lotutako alertak entzuten ditugu maiz. Ez al dira gehiegi ematen?

Ez, ez dira larregi ematen. Abisu horia dago; alerta laranja; eta alarma gorria. Abisu horiak asko daude, baina abisuak besterik ez da, horiekin ez dugu ezer egin behar. Adibidez, izotza egitea espero denean abisu bat botatzen da. Zergatik? Jende batengan eragina izan dezakeelako; baratzea duelako, errepidera irten behar duelako... Elur maila mila metrotik jaisten denean ere abisu horia botatzen da. Egongo da jendea metro horietan ibiltzen dena autoan; gehiengo ez, baina batzuk bai. Horregatik, abisua botatzen da, jarduera konkretu batzuetan jakin dezaten; hala ere, ez du esan nahi arriskurik egongo denik. Alerta laranja dagoenean, arriskua egoten da; adibidez, kostaldean itsasoak gogor jotzen duenean eta kalteak egon daitezkeenean. Alerta laranja gutxi egoten dira urtean zehar. Alarma gorriari dagokionez, berrix, urteak daramatzagu hori aktibatu gabe. Hortaz, abisu hori asko daude, bai; baina ez behar baino gehiago. Abisatu behar da egoera batzuek jarduera zehatz batzuetan eragina dutelako. Beste gauza bat da hedabideetan nola azaltzen den hori.

Etorkizun hurbilari begira jarrita, gaur egun zein izango litzateke meteorologoez duzun erronka nagusia?

Muturreko egoerak zailak izaten dira iragartzeko. Ekaitz sakona datorrenean edo



Salazar, eguraldiari buruz berbetan, Zaldibar antzokian.

"EMATEN DUGUN IRAGARPENAREN ARABERA JENDEAK JAKIN BEHAR DU ZELAN ERABILI INFORMAZIOA"

"BASERRITARREK DUTEN ESPERIENTZIA EZ DA LORTZEN, NAHIZ ETA GAILU ASKO IZAN"

"KLIMA ALDATZEN ARI DA, BAINA HORREK EZ DU ESAN NAHI NEGUAK BETI SUABEAGOAK IZANGO DIRENIK"

ekaitz bortitza dagoenean iragarpen ona egitea oso zaila izaten da. Eredu meteorologiko horiek oraindik gehiago garatu behar dira; eredu horietan asko hobetzea zaila da, baina erronka izango litzateke muturreko egoera horiek etortzen direnean iragarpen hobe egin ahal izatea.

Aurtengo negua... joan da?

Nik ez nuke esango. Egia da oso negu lehorra izan dela, azaroa izan ezik, eta tenperatura ohi baino altuagoa izan dela. Otsailak ez dut uste susto handirik emango digunik, baina oraindik martxoa geratzen da. Ezin dugu aurreratu martxoko eguraldia. Pentsa daiteke klima aldatzen ari denez... baina horrek ez du esan nahi urtero-urtero neguak suabeagoak izango direnik; hala ere, errazagoa da negu suabea izatea negu gogorra izatea baino, eta hori da hemendik aurrera gertatuko dena. Horrek ez du esan nahi bat-batean martxoa oso oker ezin denik etorri, edo datorren urteko negua oso gogorra izango ez denik. Baina, joera bezala, pentsa dezakegu udan bero handiagoa egingo duela eta neguak suabeagoak izango direla. ■■■

Birusek gaixotzen dute

HOTZERIA ETA GRIPEA



JANIRE LAMARIANO

KIMIKA ORGANIKOAN DOKTOREA

ARGAZKIA: BRITTANY COLETTE

Zenbatetan entzun dugu: "Hotz egiten du, jantzi ondo"; "Lehortu ilea!". Makina bat aldiz entzun dugu, baina egia ote da hotzak eta hezetasunak gaixotu egiten gaituztela? Egia edo mitoa, euskaraz zein gaztelaniaz, hotzari egiten diogu erreferentzia mukiak, buruko mina, eztula eta doministikua eragiten dizkigun egoerari. Hotzeria, hain zuzen. Erantzulea, ordea, ez da hotza, birusa baizik.

Birus mordoxka inguruan

Zientziaren ikuspuntutik bizitzak hiru bizi funtzio izan behar ditu: erlazioa, nutrizioa eta ugalketa. Birusek, ordea, ez dute hori guztiz betetzen; izan ere, ezin dira bakarrik ugaltu. Nahitaezkoa dute beste zelula bat bahitzea eta beraien esanetara ipintzea. Eta hemen paradoxa; batzuentzat, birusak bizidunak dira, baina beste batzuentzat, ez.

Eztabaida horrek jarraitzen duen bitartean, ukalezina da izaki mikroskopiko sinple horiek kolonizatzeko eta izurriteak sortzeko duten gaitasuna. Gogoan izan hiesa, ebola, hegaztien gripea edota espainiar gripea. Azken horrek munduko populazioa aldatu zuen 50 milioi hildakorekin. Egunotan ere birus baten

mutazio batek bete ditu albistegietako lerroburuak. Munduko osasun agentziak alerta egoeran daude.

Beldurgarria dirudien arren, inguruan birus mordoxka bat ditugu. Beraiekin bizi gara eta horregatik gaixotzen gara.

Kasu gehienetan, gure gorputzak aurre egiteko mekanismoak ditu, eta izaki horiekin dugun elkarbizitzak egun edo aste batzuk besterik ez du irauten.

Urteko garai honetan protagonismoa bi gaitzek izaten dute: hotzeria arruntak eta gripeak.

Hotzeria arrunta eta gripea

Hotzeria eta gripea birusak dira, baina familia ezberdinekoak. Sintomak antzekoak izan arren, intentsitate handiagoarekin azaltzen dira gripeareen kasuan.

Birusen izaerari dagokionez, hotzeria sortzen duten ehunka birus daude, honen sintomak gradualki agertzen dira eta gaixo gauden epea motzagoa izaten da gripearekin konparatuta. Gripeareen birusa bereziagoa da, eta urtero pairatzen ditu aldaketa

**HOTZAK EZ GAITU
GAIXOTZEN, BAINA
SENTIKORRAGOAK
GARA GAIXOTASUNEN
AURREAN**

genetikoak. Horregatik, urte batzuk beste batzuk baino gogorragoak izaten dira.

Birusen kontra dugun lehen defentsa gure sudurra da: mukiak eta iletxoak. Iletxo horiek birus, bakterio edo beste substantzia kaltegarrien sarrera blokeatzen laguntzen dute, eta mukiek horiek desplazatzen edo kanporatzen.

Ondoren, gure sistema immunologikoa dago, makina perfektu baten antzera gure organismoa babesten duena. Norbaitek kutsatuta hartzen dugu birusa, eta, higie neurririk edo gogoetarik ezean, guk beste batzuk kutsatzen ditugu. Kutsadura hori aire bidezkoa da, eta eztlarekin batera kanporatzen diren ur tantatxo bidez bidaiatzen dute patogenoek.

Bidaia horretan dago gakoa. Eztula egitean sortzen diren tantatxoetan garraiatzen dira birusak. Tantatxo horiek inguruan ibiliko dira dantzan, poliki-poliki grabitatearen ondorioz lurrera erori arte.

BBCk argitaratutako artikulua baten arabera, airearen hezetasun maila ezberdina da urtaroaren arabera, eta horrek korrelazio zuzena du birusen garraioarekin. Udan, esaterako, hezetasun maila handiagoa da neguan baino. Beraz, lehen esandako tantatxo horiek ur tantei lotu eta tanta handiagoak sortzen dituzte. Handiagoak izanda gehiago pisatzen dute,



eta lehenago erortzen dira lurrera.

Neguan, ordea, hezetasuna ez da hain handia, eta tanta horiek askoz ere txikiagoak izaten dira. Flotatzen orduak edo egunak pasa ditzakete. Ondorioz, neguan norbaiten eztuleko koktela egon daiteke airean, eta arnastean kutsatu egin gaitezke.

Horrekin lotuta, hotza dela-eta berogailua ipintzeko beharra izaten dugu, horrek ere aireko hezetasuna jaisten du, eta lehen aipatutako efektua areagotu.

Bestetik, hotzak gure egunerokotasuneko aktibitatean eragin zuzena du,

neguan denbora gehiago pasatzen baitugu espazio itxietan eta pertsonekin kontaktuan; hala, kutsatzeko probabilitatea esponentzialki igotzen da.

Beraz, egia da hotzak ez gaituela gaixotzen, baina birusei aurre egiteko sistema immunean eragina duela probatu da.

HOTZERIAREN ETA GRIPEAREN AURREAN, HIGIENEA MANTENDU ETA SAIATU EZ KUTSATZEN

BBCko beste artikulua batek hotzak eta hezetasunak hotzerian duten eragina aztertzen dituen ikerketen laburpen bat dakar. Horren arabera, gure gorputzaren defentsa diren globulu zuriak odol hodian bidez garraiatzen dira eta odol hodi horiek aldaketak jasaten dituzte tenperaturaren arabera. Hotzarekin uzkuritu eta beroarekin dilatatu egiten dira. Ile bustiarekin edo hotzak gaudenean, gure gorputzeko tenperatura mantentzeko gure sudur eta eztarriko odol hodiak uzkuritu egiten dira, eta globulu zuriak ez dira heltzen. Babesik gabe geratzen gara.

Ondorioz, hotzak ez gaitu gaixotzen, baina sentikorrango bihurtzen gara gaixotasunen aurrean. Hotzeriaren eta gripearen aurrean ezer gutxi egin daiteke: higienea mantendu eta kutsatzen ez saiatu.

Esaterako, doministiku egitean, hobe da eskua beharrean beso edo zapi bat erabiltzea, eskuekin gauza eta pertsona asko ukitzen baititugu. Leihoak zabaldu eta espazio txikieta airea berritzea ere oso gomendagarria da. Prekauzio guztiak hartu arren, zaila da izaki horiekin topo ez egitea. Beraz, zorte on birusen kontrako gerran! ■■■

Akordio aitzindaria

OÑATIKO ESKALADA-GUNEAK BIRGAITZEKO PROIEKTUA

ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: GIPUZKOAKO MENDI
FEDERAZIOA

Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkartek Aloña Mendiko Kirol Elkartea eta Oñatiko Udala saritu ditu, eskalada eskolarekin egindako lanagatik.

Kirol modalitate bakoitzak egin ohi du bere modalitateko proposamena sarirako. Hala, Gipuzkoako Mendizale Federazioak Oñatiko Udala eta Aloña Mendi Kirol Elkarteko Mendi Saila proposatu zituen mendizaletasun sarirako. Araotz eta Atxuriko eskalada-guneak birgaitzearen aldeko ekimen berritzaileak abian jartzea bultzatu dutelako saritu dituzte Udala eta herriko kirol elkartea.

"Aspaldian oihartzun handia eduki izan du proiektu honek, ez bakarrik Euskal Herri mailan, Espainia mailan ere bai, eta erreferente bihurtu da beste eskola batzuek, birgaitzeari eta konpromiso mailari dagokionez. Sariak eta aipamenak jasotzen ari gara, eta aurkezpen askotan azaltzen ari dira proiektu hau. Federazioak eredu moduan aurkeztu du proiektu hau", adierazi du Gaizka Galfarsoro eskalatzaileak.

Egindako lanari balioa ematea
Sariak baino inportantzia handiagoa dauka egindako lanak, Galfarsororen esanetan.



Donostian jaso zuten saria.

"Horrelako proiektu batek urte askotako lana dakar. Hau hasi zen lehenengo akordioak lortu genituenetik Araotzeko natura mantentzeko. Gero, auzotarrekin lortu genituen akordioak etorri ziren, errepide alboetan ez aparkatzeko eta ingurua errespetatzeko. Azken pausoa izan da Araotzeko eskalada eskola Oñatiko aire libreko instalazio bilakatzea, honek dakartzan ezaugarri guztiekin. Alegia, urte askotan egin diren urrats askoren ondoren iritsi den emaitza izan

**ALDUNDIAK, MENDI
FEDERAZIOAK, OÑATIKO
UDALAK ETA MENDI
SAILAK LANKIDETZAN
DIHARDUTE**

da, eta pozik gaude",
azpimarratu du.

Lau eragileren arteko akordioa
Proiektu honen berezitasuna da lau eragileren arteko akordioa dela. Hori izan da, hain zuzen ere, saria jasotzeko arrazoi nagusia.

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako Mendi Federazioa, Oñatiko Udala eta Aloña Mendi Kirol Elkarteko mendi saila dira joan den urtean akordioa sinatu zutenak. "Espainia mailan lehena da mota honetakoa. Horregatik, oso inportantea da, eredu bihurtuko delako beste eskola eta eskalada-gune askorendako", azaldu du eskalatzaileak.

Akordio honen bitartez, Araotzeko eta Atxuriko eskalada-guneak birgaitu ahal izan dituzte. "Diputazioak finantzaketa jartzen du. Federazioak, bere teknikarien eta Oñatiko eskalatzaileen bitartez, berriro hornitzen ditu –paretetako aingura zaharrak kendu eta berriak jarri, eta beste hainbat lan–. Udalak konpromisoa hartu du lur-jabe pribatu horien lagapen bat egin eta ardura bere gain hartzeko. Horrez gain, bideak garbitu, aparkalekuak ondo eduki eta kartelak ipintzeko ardura ere hartu du", dio Galfarsorok.

Pribatutik publikora

Arriskuak "ahalik eta gehien" murrizten saiatu direla aitortu



Ion Agirre oñatiarra aingura zaharrak kentzen eta berriak jartzen ibili zen Araotzeko eskalada-gunean.

du Galfarsorok. "Arrisku horiek mugatzea izan zen lan handienetako eta zailenetako bat. Izan ere, aire libreko halako gune batean asko izan daitezke arriskuak, kiroldegi batekin alderatuta, adibidez".

Era berean, onartu du duela 20-30 urte hornitutako paretak zirela horiek, eta materiala zahartu egiten dela. "Horiek orain arte eskalatzaileen ardurapean hornitu izan dira, baina, akordio honen bitartez, Federazioaren ardurapean egin dira eta egingo dira lan horiek. Auzotarrei ardura hori kentzea ere oso pauso garrantzitsua izan da. Izan ere, orain arte, ia modu ilegalean aritu izan gara, baimenik eskatu barik eta leku pribatu batean eskalatzen. Ia instalazio publiko bat izatera heldu gara, eta hori oso garrantzitsua da".

Guztira, 17 eskalada-gune

Galfarsororen esanetan, Diputazioa barneko turismoa indartu guran dabil. "Horren baitan, dirulaguntza bat jaso zuen eskalada eskolak, paretak berriro hornitzeko. Gipuzkoan, guztira, 17 eskalada-gune birgaitu dituzte dirulaguntza horrekin. Gune horien barruan, Oñatikoez gain, Eskoriatzako bi ere badaude. Atxorrotzeko eskalada-gunea ere badago, eta Erañan ere bai. Hala ere, hor arazoak dituzte, harri handi bat dagoelako erdi solte, eta

17 MINUTUKO DOKUMENTAL BATEAN JASOTA DAUDE PROIEKTU HORREN NONDIK NORAKOAK

teknikoki ez dakite nola konpondu hori".

Dokumental batean azalduta

BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia mendiko zine dokumentalaren jaialdian aurkeztu zuten *Eskalada jasangarria* Gipuzkoan dokumentalak azaltzen du proiektu hau. "17 minutuko lan horrek azaltzen du nola Gipuzkoako 17 eskalada-gune berriro hornitu dituzten, nola prestatzen diren lan hori egin behar duten teknikariak, ze gune diren, ze kartel jartzen diren, eta abar. Ostean, Oñatiko proiektuan zentratzen da, gehienbat, eta parte hartu duten eragileek hartzen dute berba: auzotarrek, udal ordezkariak, eskalatzaileak, eta abarrek. Lan horiek nola egin diren eta prozesua nolakoa izan den azaltzen dute". ■

"Nerabeen oinetakoetan jartzen ikasi behar dugu"

PAKITA MATEOS ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO TALDEKO ARDURADUNA AGIPAD ELKARTEAN

GURASO.EUS

ARGAZKIA: AGIPAD ELKARTEA

Pakita Mateos Agipad elkarteko adikzioen prebentziorako taldearen arduraduna da. Urte asko daramatza adikzioen eta gazteen inguruan lanean. Oraingoan, gurasoekin dabil lanean, eta hainbat saioko formakuntza egin du Arrasaten. Gurasotasun positiboaren nondik norakoak azaldu eta erakutsi ditu.

Gero eta gehiago entzuten ditugu gurasotasun positiboaren gaineakoak. Zer da?

Gurasoekin lan egiten saiatzen gara, familian harreman positiboak sustatzeko. Helburua da erantzukizunean oinarrituta ongizate pertsonalaren eta sozialaren garapen egokia sustatuko duen ingurunea sortzea. Gurasotasun positiboaren oinarriak dira seme-alaben premiak errespetatzea eta neska-mutikoen garapena erraztuko duten ekintzak abian jartzea. Nola lortzen da hori? Esaterako, atxikimendua indartzu, jolasaren bidezko interakzioa bultzatuz, gatazkarekin

amaitzen ez den komunikazio eredua landuz... Hemen kontuan hartu behar dira familia bakoitzaren ingurunea eta gurasoen trebetasunak.

Zeintzuk dira tailer horien helburu nagusiak?

Esku-hartze komunitarioko lanak egiten ditugu, eta zutabe garrantzitsu bat familiekin egiten den lana da. Lehen, zentratzen ginen, bereziki, kontsumitutako substantzietan, baina orain, prebentzio lan zehaztu gabeagoa egiten dugu, non gurasotasuna lantzen saiatzen garen. Helburua da drogekiko ardura handiagoa izango duten gazteak heztea.

Zergatik da garrantzitsua gurasotasun positiboan trebatzea? Ze onura ditu?

Azken hamarkadetan egindako ikerketa zientifikoek argitu dute familia testuinguruak eragin esanguratsua duela pertsonen garapen psikologikoan. Psikologiak eta beste gizarte eta osasun zientzia batzuek eragin horren mekanismoak identifikatu dituzte. Eta, batez ere, erakutsi dute zeintzuk diren gazte baten zoriontasuna eta osasun

mentala sustatzeko familiarekin zerikusia duten eta giltzarri diren aldagai nagusiak. Gurasotasun positiboa da hazkuntza errespetutik ulertzeko modu bat. Iraganean, beste bat zen eredua, eta familia harremanak hierarkian oinarrituta ziren. Hortik gatoz. Bistan da denak ez garela berdinak, baina denok merezi dugu errespetua. Hala, gure haurrak babesten ditugu gaur egun. Arauak eta mugak ezartzen dizkiegu, baina errespetuan oinarrituta. Horrela izango dute autoestimu handiagoa, izango dira enpatikoagoak eta garatuko dituzte etorkizunean ezinbesteko izango dituzten tresnak. Haurrak eredu horretan hazten baditugu lortuko dugu etorkizunean harreman ez oso arriskutsua izatea drogekin; izan ere, hobeto eutsiko diote taldearen presioari, hartutako erabakiekiko leialagoak izango dira eta argudio gehiago izango dituzte egoera ezberdinei aurre egiteko. Hau da, askoz ere tresna gehiago izango dituzte kontsumitu edo ez



Agipad elkarteko kide Pakita Mateos.

erabakitzeko. Nola, noiz eta zergatik aztertze.

Ikastaroa egin berri duzue Arrasaten. Zertan oinarritu da *Gurasotasun positiboa* izeneko formakuntza?

Tailer horretan saiatu gara gurasoek uler dezaten zer den 2020an nerabe izatea. Zernolako premiak dituzte gazteek? Zerk kezkatzen ditu gehien? Zer sartzen da ohiko jokabideen barruan eta zer ez? Helburua da familiek hobeto ulertzea etapa horretan dituzten seme-alabak, eta hori

zabalduta dauden uste edo mito guztiak alboratuz. Nerabezaroa aldaketa-unea da eta pertsonoi kosta egiten zaigu aldaketetara egokitzea, baina ikas dezakegu. Ez ditugu seme-alabak tratatu behar kristalezko kutxa batean egongo balira bezala. Beti diot nerabeen oinetakoetan jartzen ikasi behar dugula. Horrek ez du esan nahi haur bihurtu behar dugunik, baizik eta enpatikoagoak izan behar dugula. Lagundu egin behar ditugu, irakatsi egin behar

"GURASOTASUN POSITIBOA DA HAZKUNTZA ERRESPETUTIK ULERTZEKO MODU BAT"

diegu, baina errespetutik eta maitasunetik abiatuta beti. Normalean, udalendako egiten du lan Agipad elkarteak, eta udalekin batera diseinatzen dugu zer tailer mota komeni den egitea, herriaren, egoeraren, eta abarren arabera. Saiatzen gara gure lana eskaera horietara egokitzen eta tailerretan dugun jendearen premietara egokitzen. Inork informazio gehiago behar badu, jar dadila gurekin harremanetan www.agipad.org atari digitalaren bitartez.

Nola deskribatuko zenuke Agipad elkarteak?

Agipad drogen abusuaren ikerketarako eta prebentziorako Gipuzkoako elkarteak da. Irabazi-asmorik gabekoa da, apolitikoa eta akonfesionala. 1980. urtean sortua, helburu garrantzitsuenak da ikerketa, prebentzioa eta gizarte-bazterketan dauden pertsonen aldeko tratamendua eta lan profesionala egitea. Batez ere, drogen kontsumoarekin zerikusia duten kasuak jarraitzen ditugu. Elkarlanean dihardugu hainbat elkarte eta erakunderekin. ■■■

Santa Ana jatetxean tradizioa nagusi



IÑAKI PILDAIN SUKALDEBURUA

IRUDIAK: A.T. ETA J.O.

Egunero, gure jatetxea bisitatzen duten bezeroak harritzen saiatzen gara eta atsegin handiz hartzen ditugu gurera etortzen direnak. Profesional talde gazte batek osatzen du Santa Ana hoteleko jatetxearen lantaldea.

Terraza bikaina daukagu Arrasateko ikuspegiez gozatzeko, ogitarteko edo plater konbinatu bat hartzen duzuen bitartean.

Sasoikoaren garrantzia

Sasoiko sukaldaritzak, jenero onak eta sormenak ezin hobeto deskribatzen dituzte gure sukaldaritzaren oinarriak: haragiak, arrainak, baratzeko barazkiak, postre harrigarriak... eta ardo-karta itzela, aukerarik onenekin.

Horren adibide argia da datorren orrialdean dagoen platera, gertuko produktuekin eta sasoikoekin egindako plater erraz baina aparta. Hala, Santa Anan gure inguruko baserritarren produktuak

sustatzen ditugu, bertakoa kontsumituz eta gure bezeroei eskainiz.

Tradizioari eutsi

Gure ohiturei bereziki errotutako jatetxea da Santa Ana; horri jarraiki, Arrasaten garizuma garaiarekin lotutako tradizio bat ekarri dugu gurera: karapaixoak. Ohiko txorizo eta ogi karapaixoez gain, txokolate eta sagarrarekin egindakoak ere eskaintzen ditugu, denak etxean eta mimo handiz egindakoak. ■■■

Santa Ana jatetxea

- **Helbidea:** Uribarri auzoa 37, Arrasate.
- **Telefona:** 943 79 49 39.
- **Posta elektronikoa:** pildain@santaanamondragon.com.
- **Webguneak:** Santaanamondragon.com eta Sigisagan.eus.



SANTA ANA JATETXEARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Ilarrak eta babak urdaiazpikoarekin eta arrautza galdarraztatuarekin

Osagaiak (4 lagunendako)

- Sasoiko ilarrak
- Baba txikiak
- Urdaiazpikoa
- Arrautza 1
- Tipulina berri bat
- Berakatz bat
- Olio
- Gatza
- Ozpina

Prestaketa

1. Tipulina eta berakatz xehatu eta oliotan potxatu.
2. Behin potxatuta, ilarrak eta babak gehitu eta potxatzen jarraitu, bigun egon arte.
3. Ura irakiten jarri, ozpina gehitu eta gatz apur batekin arrautza gehitu. Bost minutu inguru utzi arrautza irakiten, egosi gabe.
4. Urdaiazpikoarekin batera dena plateran jarri

Zailtasuna: • • • • •

Aurreko zozketako irabazlea: Maider Perez Martinez (Eskoriatza)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Udaberriko kolorea

MOREA

AMAIA ARANEGI

ARGAZKIAK: PINTEREST

Duela hilabete batzuetatik indarra hartzen hasi da, orain asko ikusten da eta ukaezina da udaberriko kolorea izango dela. Morea pertsonalitatea eta izaera markatua duen kolorea da eta uste baino errazagoa beste kolore batzuekin konbinatzeko. Iraganean, kolore morea erreginen familiarekin eta Elizarekin erlazionatzen zen, garestia baitzen kolore honetako arropa erostea. Orain, edonoren armairuetan aurki ditzakegu kolore moreko arropak, oinetakoak eta osagarriak.

Kolore bizia da morea; batzuentzat, agian, ausartegia, baina *look* desberdinak osatzeko eta basikoetatik aldentzeko baliagarria da. Honela dio Luar dendako Isabel Negreirak: "Kolore moreak apurtzeko balio du. Bakero batzuekin kamiseta edo jertse more bat jantzi daiteke eta gris koloreko arropekin ere konbinatu daiteke".

Morea ez da ohiko kolorea eta jendeari kostatu egiten zaio horrelako koloreetan dirua gastatzea: "Jendeak gauza praktikoak nahi ditu. Hau da, egunerokotasunean eta beste momentu batzuetarako baliagarriak izan daitezkeen arropak. Horrexegatik, horrelako koloreko arropa asko izatea zaila ikusten dut.

Beharbada, jertseren bat edo osagarriren bat".

Osagarrietan ere bai

Osagarriek *look*-ari beste ukitu bat emateko eta batzuetan *look*-aren arreta guztia bereganatzeko balio dute. *Look* guztia nahiko iluna izaten bada osagarri morearekin bizitasuna lortzen da, eta atentzioa bereganatu. Hori lortu nahi bada, aukera ona da kolore moreko osagarriak erabiltzea. Osagarrietan: poltsak, gerrikoak... oso ohikoa izaten da kolore ilunak edo basikoak erabiltzea. Beraz, kolore moreak ohikotasun hori apurtzea lortzen du.

Oinetakoetan ohikoagoa da modak jarraitzea. Marka batzuetako oinetakoak modan jartzerakoan, jende askok erosten ditu. Beraz, oinetakoan kolore morea ikustea normala dela dio Negreirak: "Oinetakoetan tendentziak asko jarraitzen ditugu. Gainera, kolore biziak asko erabiltzen dira oinetakoetan".

Ekitaldi berezietarako aproposa

Festarako eta ekitaldi berezietarako ere kolore aproposa de morea. Zilarrezko ukituekin oso ondo geratzen da eta, gainera, goizerako edo gauerako balio du. Praka more batzuk edo soineko more bat jantzita, ekitaldi berezi baterako *look* aproposa izan daiteke.



Look kasuala, jertse morearekin.



Poltsa morea.



Praka moreak, festarako.



Tonalitate desberdineko moreekin osatutako *look*-a.

Horrelako egunetan, egunerokotasunetik pixka bat aldendu eta arropa desberdinak erabiltzen ditugu. Beraz, kolore moreko soineko bat, traje bat, gona edo prakak aukera ona izan daitezke desberdin joateko eta, aldi berean, joerak jarraitzeko.

'Total look'-a

Look guztia kolore berarekin osatzea joeran dago. Izan ere, azkar eta erraz jantzi zaitezke kolore berarekin, markek aukera zabala eskaintzen baitute. Era berean, egia da beltzez edo ohiko kolore neutroz jantzea errazagoa dela, ez da-eta atentziorik ematen. Kolore argi eta biziekin *total look*-a osatzea ausarta izan daiteke, eta, batzuetan, gehiegi dela sentitu: "Guztiz more jantzita joatea nekagarria izan daiteke; horregatik, osagarriren bat edo barruko kamiseta beste kolore batekoa izanda, *look*-a arintzen du eta erakargarria izan daiteke".

Edozelan ere, egia da *look*-aren elementu guztiak kolore berarekin eta bat beste kolore batekin osatzerakoan, elementu horrek atentzioa erakartzen duela eta jokoa ematen duela.

Horrez gainera, kolore berekoak izan daitezke, baina tonu desberdinetan. Horrela, kolore bereko harmonian zaude, baina tonalitate desberdinekin. ■■■

Likidoak, kontrolpean hobeto

AUTOAREN MANTENTZEA

XABI GOROSTIDI

ARGAZKIA: X.G.

Autoa egunero erabili arren gidari askok eta askok ez dakite piperrik ere mantentze kontuei buruz; autoaren kapota altxatu, eta ikusten duena Bulgariako mapa bezain arrotza egiten zaion gidari asko dago. Mantentze kontuei buruz ezer gutxi dakiten horien artean, ohikoa izaten da autoari egin beharreko azterketa mekanikoak negozio hutsa direla pentsatzea. Baina ez dago mekanika kontuetan aditu izan beharrik ibilgailua *osasuntsu* edukitzeke. Bost likido kontrolpean izateak asko laguntzen du autoaren mekanikak kale egin ez dezan.

Olio maila

Likido hori funtsezkoa da ibilgailu batek ondo funtzionatzeko. Ez badago nahikorik, edo dagoena kalitate eskasekoa bada, motorreko elementuak segituan hasten dira kaltetzen: gehiegizko beroagatik edo piezen arteko desgasteagatik, besteak beste. Gaur egun, auto gehienek dute abisu sistemaren bat olio maila zenbatekoa den ikusteko, baina lagungarria da gidariek euren kabuz hori frogatzen jakitea. Baina, nola egin? Lehenik eta behin, hotzean egin behar da neurketa, eta autoa leku lau batean geldirik dagoela. Olioaren haga kapot barruan

aurkitu –normalean, helduleku horia edo zuria izaten dute–, eta atera ostean, honen punta garbitu behar da paperarekin. Punta horretan bi marka daude, olio maila maximoa eta minimoa. Punta garbia berriz sartu eta atera ostean, argi ikusiko da olio maila zein puntutan dagoen. Olioaren kalitatea zein den ikusteko, honen kolorea ikusi behar da: doratua bada, egokia da; marroixka bada, aldatzeko ordua gertu dagoela esan nahi du; eta beltz antzekoa bada, segituan aldatu beharra dago.

Likido hozgarria

Likido hori ez da denboraren poderioz ahultzen edo desagertzen. Behar baino gutxiago izanez gero, zirkuituan zehar ihes-puntu bat dagoen seinale da. Kapota zabaltu eta edukiontzian nahikoa likido dagoen ikustea nahikoa da. Plastikozko edukiontzi garden bat izaten da; orokorrean, tapoi urdina edo beltza du.

Direkzio-likidoa

Zure autoak direkzio lagundua badu, jarri arreta likido horri.

BOST LIKIDO KONTROLPEAN IZATEA LAGUNGARRIA DA AUTOA 'OSASUNTSU' EGOTEKO

Bolantea normalean baino gogorrago igartzen baduzu, momentu aproposa da maila egokia duzun edo ez frogatzeko. Horretarako, olioarekin bezala egin behar da: haga atera, garbitu, berriro sartu eta maila ikusi. Tapoi beltza izaten da, orokorrean, eta bolante baten ikurra edukitzen du.

Balazta-likidoa

Balazta sakatzen duzun bakoitzean egiten duzun indarra freno sistemara heltzea ahalbidetzen du likido horrek. Autoaren mantentzea egokia bada, likidoak ez du zertan gutxitu. Behar baino gutxiago baduzu, bi arrazoi nagusi daude: sisteman ihesen bat edukitzea edo balazta-pastillak xahututa egotea. Ihesen bat izanez gero, autoa aparkatzerakoan auto azpian likido markak agertzen dira.

Haizetakoak garbitzeko likidoa

Ez da aurreko bostak bezain funtsezkoa, akaso, baina segurtasunez gidatzeko oso lagungarria da; batez ere, euriarekin, lokatzarekin edo bien nahaste batekin gidatzea tokatzen bazaizu. Kapota altxatu eta segituan aurki daiteke likido honen edukiontzia, eta tapoia: autoaren kristala irudikatzen duen marrazki modukoa izaten dute. Ez da komeni edukiontzia goraino betetzea; neguan, izoztuz gero, edukiontzia apurtu egin daiteke. ■



Pertsona bat, autoaren kapota altxatuta.

Xabier Martin

JONE OLABARRIA

IRUDIAK: XABI MARTIN

Ikus-entzunezko Komunikazioa ari da ikasten Xabier Martin (Antzuola, 1998). Kamerekiko duen afizioa ofizio bihurtu nahiko luke gazteak, bereziki zinemagintza eta naturan jarrita fokua.

Nola hasi zen kamerarekin erlazioa?

Aitari betidanik gustatu izan zaio argazkilaritzan aritzea, eta, hortaz, txikitatik izan dut hartu-emanak kamerarekin. Dena dela, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten nembilela hasi nintzen seriotasun gehiagorekin argazkilaritzan, nire kabuz probak eginez.

Formakuntzarik jaso duzu?

Hasiera batean, aitarengandik ikasi nuen; berak egin izan ditu hainbat formakuntza-saio eta bertan ikasitakoak erakusten saiatu izan da beti. Ikus-entzunezko gradua ikasten nabil orain, laugarren mailan, eta sakontasun gehiagorekin argazkilaritzaren hainbat alor landu ditut bertan.

Naturarekin lan egitea gustatzen zaizu; baduzu elementu kuttunik?

Itsasoak erakarri izan nau betidanik. Orokorrean, naturako elementuekin lan egiten dut, baina, niretzat, itsasoak zerbait berezia du. Gehiegi lantzen ez ditudan arren, bestelako irudi motak ere gustatzen zaizkit, eta horiei buruz ikasi nahiko nuke;



erretratuak eta pertsonak, esaterako.

Bideogintzan ere aritzen zara.

Zinemagintza betidanik gustatu izan zait. Nahitaez, lotura estua dute batek eta besteak; hala, bideogintzan ere irudia zaintzeari garrantzia berezia ematen saiatzen naiz.

Edizioan aritzen zara?

Ahalik eta naturalen laga ohi ditut argazkiak; nahiago dut kamerarekin jolastu. Hala ere, asko gustatzen zait salteatzea, eta, batzuetan, gauza politak ere irteten dira edizioa landuz.

Zure lanak partekatzen dituzu?

Instagram sare sozialean argazkiak argitaratzeko kontu bat dut (@x.photo1). Azkenaldian irudi gutxi


argitaratu ditudan arren, egindako lana bertan partekatzea gustatzen zait; hein batean, erakusleihen modura.

Baduzu erreferenterik argazkilaritzan?

Gertuko hainbat argazkilariren lana jarraitzen dut; batzuk aipatzearen, asko gustatzen zaizkit Iker Aizkorbe antzuolarraren eta Ekaitz Zilarmendiren irudiak.

Etorkizunean nora bideratu nahiko zenuke zure jarduna?

Gradua bukatzen nabil une honetan. Laugarren mailan ari naiz eta datorren ikasturteari begira ez dut oso argi zer egingo dudan. Dena den, zinemara bideratu nahiko nuke nire etorkizuna. ■■■



Txanogorritxo kaputxadunak

AIN_1 MUSIKA TALDEA

AITZIBER ARANBURUZABALA JULDAIN

ARGAZKIAK: AIN_1 ETA GOIENA

Ain_1 taldeak gero arte esan zuen 2015ean, atea guztiz itxi gabe utzita; harrezkero, birritan igo dira taularen gainera; biak, Elkartasun Egunean. Bi urte geroago, bi kontzertu egiteko gogotsu daude: martxoaren 7an Bergarako Seminarixoan, izango dira eta martxoaren 14an Arrasateko gaztetxean.

Sorpresa eta oparia

Berragerpena sorpresaz hartu dute zaleek, eta harrerarekin harrituta eta pozik daudela diote taldekideek: "Jende oso ezberdinak adierazi digu feedbacka, eta polita da hori; oso pozgarria da, era berean, 15-16 urteko gazte askok gure kantuak dakizkitela ikustea; izan ere, kalkuluak ateratzen hasita, naturalki, ez dagokie".

Martxoaren 8aren harira, eskaintza asko jasotzen dituzte; aurten, Bergarako Udaletik. "Bi urte jo gabe goaz, bakoitzaren egoera pertsonala asko aldatu da, eta, ezezkoak eman ditugun arren, oraingoan baiezkoa argi genuen guztiok; mugatua da, bi kontzertu bakarrik izango dira, guretako oparitxo moduan. Jotzeko egindako eskaintzek eta oholtzara igotzeko gure goseak bat egin dute. AMAKekin partekatuko dugu Bergarakoa, eta guretako areto mina den Arrasateko gaztetxean egingo dugu, guk bakarrik, bigarrena".

"Nahi barik sortutakoa"

Amaia Pavon –biolina eta klabea–, Ainara Kortabarria –gitarra, harmoniuma, perkusioa eta beste hainbat instrumentu berezi jotzeaz gain abestu ere egiten du–, Maialen Madariaga –perkusioa– eta Iraitz Agirre –gitarra eta abeslaria– dira, gehienetan, Ain_1, eta gertu izaten dute askotan Itsaso Navaridas dantzaria. Musika lasaia eta gozoa egiten dute baina bestelakoa da zuzenean duten jarrera, gozoa besteko indartsua.

Taldekideen asmoa ez zen hasiera batean musika talde bat sortzea; Bilgune Feministaren *Emakumeak plazara* ekimenak bultzatuta egin zutela lehen zuzeneko dio Iraitz Agirrek: "Asko gustatzen zait taldearen sorrera prozesua kontatzea. Bilgune Feministako kide nintzen garai hartan –eta gaur egun ere hala naiz–, eta Ainara Kortabarriari proposatu nion Lagunilla tabernan saio txiki bat egitea. Kontzertuan, publikoan zegoen Itsaso, eta bukaeran, nik kantatu nuen abestia egunen baten jendaurrean berriz abestuz gero bera dantza

BI KONTZERTU EGINGO DITUZTE: MARTXOAREN 7AN BERGARAN ETA MARTXOAREN 14AN ARRASATEN

egitera animatuko zela esan zidan. Handik gutxira, Ainarak Gasteizko musikarien sariketa batera aurkezteko asmoa zuela-eta laguntza eskatu zigan Itsasori eta bioi; animatu, eta hiruron artean saio polita egin genuen, eta handik, kontzertu bat egiteko eskaintza jaso genuen. Erronka onartu, eta hala hasi ginen Arrasate eta inguruetako musikariei deika, eta hala batu zitzaigun Euskal Herrira itzuli zen Amaia Pavon, eta geroago, Garaion-en egin zuten jaialdi batean ezagutu genuen Maialen".

2009an grabatu zuten lehen maketa, *Gure abestia iristen den leku guztietaraino* izenekoak. *Musika kaxa* lehen luzea atera zuten 2011n, eta 2014an Azpeitiko Elekrika estudioan Ander Barriusorekin grabatu zuten *Badoa... badirau* bigarren sorta luzea. "Bilakaera handia izan du taldeak; hasieran, kantu gutxi genituen eta poemak eta ikus-entzunezko piezak batuta osatzen genituen emanaldiak; lan luzeak argitaratu ahala gero eta saio musikologoak bilakatu ziren", dio Ainara Kortabarriak.

"Bi bakarrik, baina ezberdinak"

Diote bereziki Martxoaren 8a aintzat hartuta prestatu dutela Bergarakoa: "Guretako nahiko bitxia da beste talde batekin jotzea; ordubate ingurukoak izango da. Eta Arrasateko gure emanaldi ohikoagoa izango da, lan guztietakoak eskainita". ■



Maialen Madariaga, Ainara Kortabarria, Iraitz Agirre eta Amaia Pavon dira Ain_1 musika taldea.



2015eko urtarrilean Bergarako gaztetxean egin zuten emanaldia.

Euskaraz, mesedez



UNAI ETXENAUSIA

Sekula ez dut telebista askorik kontsumitu, eta are gutxiago euskaraz. Horren zergatia ez da hamabi urte bete nituen arte etxean ez geneukala telebistarik, arratsalde asko pasatzen baintuen amonaren etxean marrazki bizidunak euskaraz zein gaztelaniaz ikusten. Nahiz horietariko erdia, edo agian gehiago, gaztelaniaz ikusi, garai hartan umeok ikusten genituen euskarazko produktuen kopurua ez zen baxua, oraingoarekin alderatuta, behintzat.

Idatzi honetan ez dut umeentzat telebista ikustea ona ala txarra den esango. Kontsumitzen dute, errealitate horretan dago gizartea. Egoera zein den aztertuta, telebista tresna erabilgarria izan daiteke umeek euskara entretenimenduarekin lotzeko. Azken finean, haiek dira gizartean hizkuntza bat ikasi eta barneratzeko erraztasun linguistiko handiena daukaten taldea.

Berritze zein ideia berriak behar dira. "*Dragoi bola* duela berrogei urte grabatutako programa da. Zuk ezin duzu produktu bat horrela erabili". Horixe komentatu zigun duela gutxi Jesus Eguzkizak, *Dragoi bola*



BEHANCE.NET / PMK

Z eta beste zenbait marrazki bizidunetan zein dokumentaletan narratzaile edo pertsonaia bati ahotsa jarri dion euskal itzultzailea, Mozoilo irratian egin genion elkarrizketa batean. Ez da inolako eboluziorik egon marrazki bizidunen eta euskararen artean. Zaharkitua geratu da jada, betiko marrazki bizidunen errepikatzea, umeentzako euskarazko *mass media* entretenimenduak indarra galdu du eta, aldaketarik ez

**UMEK IKUSI,
USAINDU, UKITU ZEIN
ENTZUTEN DUTEN
HIZKUNTZA HORI
EUSKARA IZAN DADILA**

badago, bide beretik segituko du guztiak.

Betizu-ko behiak akabatu zituzten behin, eta ez da ezer berpiztu. Ez dut umerik entzuten *Goazen lagunok, amets betean!... Dragoi bola* Z-ko abestia abesten. Agian, nire umetasuneko produktuak ez ziren hain erakargarriak gaur egun Espainiako telebista kateetan daudenekin alderatuz. Zaila da detektatzea zehazki nola eragin didan euskararen ulermen eta erabileran, azken finean, inguru euskaldun batean hezi naizelako. Baina bai uste dut inguru erdaldunago batean heztea suertatu zaion umeak marrazki bizidunak euskaraz kontsumitzen baditu, erabili ez dakit, baina bai ulermen eta jakiturian eragingo ziola. Ikaragarria da gaur egun zenbat denbora pasatzen duten umeek telebistaren parean, hor ikusi eta entzundakoa xurgatzen.

Berdin dio adinak, eragina dauka produktuak zein hizkuntzatan kontsumitzen dituzun, baina umetan are garrantzi gehiago daukala esango nuke batez ere erabilerari dagokionez. Umeek ikusi, usaindu, ukitu zein entzuten duten dena barneratzen badute, entzuten duten hizkuntza hori euskara izan dadila. ■

Goiena Klubaren txokoa

Goiena klubeko otsaileko sariak!



Ebook reader

Parte hartzeko sariaren izena: Ebook



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus

Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalik Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Datu-bilketak honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioitzatzea.

Eskubidea izango duzu datuak ez sartzea, baina zuzentzeko edo ezabatzea, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.eus



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
KOBAREN



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkide-tza: 56€

Deitu: 943 25 05 05

kluba@goiena.eus

goienakluba

Shakespearearen itzultzailea

BEDITA LARRAKOETXEA APAIZA ETA IDAZLEA

MIREIA BIKUÑA MADRID ETA
'BIDEGILEAK' BILDUMAKO LIBURUA

ARGAZKIAK: M.B.M.

"Nik irakurrita neuzkan Shakespearean lanak, eta izugarri gozo egiten zirela, eta holako gauza batzuk euskaraz jartzea lagungarri ona izango zela pentsatu nuen. Hiruzpalau lan euskaratzeko asmoz hasi nintzen, baina, nik uste baino askoz errazagoa zela ikusita, Shakespearearen teatro lan guztiak itzultzea erabaki nuen", esan zion Bedita Larrakoetxeak (Zeanuri, 1894-Oñati, 1990) *Argia* astekariari, 1983ko martxoaren 13an publikatutako elkarrizketan.

"Ibilbide luze eta oparo baten ondoren, Oñatiko agustindarren komentuan pasa zituen urte mordoa, Argentinako Saltan bere bizitzaren onena eman eta gero. Azken urteak bakarrik bizi izan nituen haren ondoan, baina gogoan dut oraindik, hil aurreko egunetan ere, bere pipari tira eta tira". Modu horretan gogoratzen du Paulo Anduaga laterandar kanonigoak Bedita edo Benito Larrakoetxea.

Liburuetan, Bedita

Benito Larrakoetxea Agirrezabala Zeanuriko Undurraga Goiko auzoko Altxagutxi etxean jaio zen. Jaiotzez Benito ipini zioten Frantzisko eta Josefa gurasoek, baina, askorendako, Bedita izan

da. Askoren ustearen kontra, Bedita Larrakoetxea gizonezkoa zen. "Benito zen bere benetako izena. Garai baten, ordea, izen propioak euskaraz adierazten hasi ziren, euskara garbi baten alde edo. Hala, Bedita izena erabiltzen hasi zen bera. Guk Benito deitzen genion, baina berak Bedita izenarekin sinatzen zituen liburu eta agiri guztiak", esan zuen Paulo Anduagak Larrakoetxearen biografia aurkeztu zuenean.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren *Bidegileak* bildumaren liburuetako bat da *Benito Larrakoetxea. Hemen nahiz erbestean euskaltzale* delakoa.

Irakasle lanetan

1907an, Altsasura joan zen, latin ikasketak egitera, ostean Laterandar Reglako kide izateko asmoa baitzuen. Han bi urte pasa zituen, eta azterketak eta hiru zinak Oñatin egin zituen. Agustindarren seminarioan egin zituen mezak esan ahal izateko ikasketak. Gasteizen abadetu zen, 1917an, eta Oñatira bueltatu zen irakasle lanak burutzera. 1928tik 1936ra arte, Oñatiko Udal Irakastegiko

**37 ANTZERKI-LAN
ITZULI ZITUEN BEDITA
LARRAKOETXEA, ETA
1976AN PUBLIKATU
ZEN EDIZIO OSOA**

zuzendari eta Rodrigo Mercado Zuazola gau-eskolako irakasle izan zen. Gerra zibila lehertu zenean, Bizkai aldera egin zuen, eta handik Ingalaterrara joan zen, gerratik ihesi, han babestu ziren euskal haurren arduradun. 1938an, Uruguaira joan zen, eta ostean, Argentinara. Han, Saltako eskolan irakasle izan zen, 1970. urtera arte. Bi urte geroago, Euskal Herrira itzuli zen, eta Oñatiko agustindarren egoitzan bizi izan zen, 1990ean hil zen arte.

Hori baino lehen, 1988an, Oñatiko Udalak euskaltegiari *Bedita Larrakoetxea* izena ipini zion, itzultzailearen eta idazlearen omenez. Horrela, garai hartako beste euskaltegi batzuetan egindako moduan, euskararekin eta herriarekin lortu estua izan zuen pertsona baten izena ipini zitzaion udal zerbitzu bati.

Kirikiño saria ere bai

Asko izan ziren Bedita Larrakoetxeak egindako idazlanak eta itzulpenak. Handiena Shakespearearen antzerki lanak euskaratzea izan zen. Banaka batzuk 1950eko hamarkadan argitaratu ziren Euzko Gogoa aldizkarian, baina edizio osoa 1976koa da, 37 antzerki-lanekin. Era berean, 1934an, Kirikiño Saria eskuratu zuen *Agirrezabala 'tar Tomas, talogintzan txapeldun* liburuarengatik. ■



Bedita Larrakoetxearen irudia, Oñatiko Udal Euskaltegiaren sarreran.



1980an, Zeanurin egindako omenaldian.



Argentinako Saltako kideekin batera.



Nima - Carmen

*Loreontzi adimenduna. Nima.
310 euro.*

Watair sistemari esker (*water + air*), behin ureztatuta landareek hiru astez ura eta sustraien oxigenazio iraunkorra izan dezakete. Buztin zuria eta terrakota koloreetan dago eskuragarri loreontzia. Kortxozko oinarria darama, zorua ez dadin markatu. Loreontziaren neurriak (landare gabe): 28x28x45 cm.



Prixton Eco Urban

*Patinete elektrikoa. Prixton.
189,95 euro.*

Gama ertaineko patinetea da honako hau, ia 10 kilo dauzka eta, gehienez, 100 kiloko pisua eutsi dezake. 106x42x97 cm-ko neurriak ditu, baina tolesteko aukera eskaintzen du. Bateriak 10 kilometro inguru iraun dezake eta, gehienez, 24 km/h abiadura har dezake. LED argiak dakartza aurrean zein atzean.

Voksun VKS-CPJHEI

*Disko-jogailu. Voksun.
66,99 euro.*

Retro estiloko disko-jogailu honek 7, 10 edo 12 hazbeteko biniloak erreproduzitzen ditu, 33, 45 edo 78 RMP-ko abiaduran. Horretaz gain, bluetooth bidez mugikorrera lotzeko aukera eskaintzen du. Era berean, iTunes-ak ere transferitu daitezke disko-jogailura. Gailuak bi bozgorailu ditu integratuta.



goiena

ADI!

GOIENA TELEBISTAK, KANAL ALDAKETA

Goiena telebista kanalez aldatu da. Telebista antena bidez ikusten baduzu, zure komunitateko antenan egokitzapenak egin beharko dituzu. Jarri harremanetan zure antena-jartzailearekin.

Informazio gehiago: **943 25 05 05**.



Jabeen erkidegoetan antena-jartzaile batek egin behar du lan hori.
Famili bakarreko etxeetan, berriz, berriro sintonizatu behar dira telebistak, kanalak ikusteko.

Dirulaguntzak eskatu ditzakezu: **Televisiondigital.gob.es**.


Informazio gehiago **943 25 05 05**.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Itzala

Zein da itzal zuzena?



Esatera zaharrak

Esaldi hauek bat etor litezke marrazkiak adierazten duenarekin, baina denak ez dira esaera zaharrak. Zehazki esanda, erdiak asmatuak dira. Bereiziko al dituzu?

1 Martxoko eguzkia, txarren txarrena

2 Apirilean ezin jakin noiz izango den ateri

3 Maitasuna eta gorrotoa bezala, eguzkia eta euria, elkarren kontrario

4 Apirila euritsu, urtea kakatsu

5 Eguzkia eta euri, martxoko eguraldi


6 Euriak ez daki eguzkia ahaltsuagoo dela

SUDOKUA



Txinako kondaira baten arabera, Lu Mei neskatoak asmatu zuen aterkia, oso aspaldi. Erronka bota omen zion anaiari, euri-az babesteko tresna onena zeinek asmatuko, eta berak irabazi.

Osa ezazu sudokua, ATERKI hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (A, T, E, R, K eta I). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.





Jaio da!

**Eman jaiotzen berri PUNTUAN eta Interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz Goienaren egoitzara.**

Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Luken Rico Campo

Aretxabaleta. 3,160 kilo. Otsailaren 19a. Gurasoak: Mirian eta Mikel. Argazkian, Noa arrebarekin.



Gurasoen premiak asetzeko gunea

guraso.eus

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikuluak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarrizketak.



Kantari

7. ALDIA
DEBAGOIENA



Arrasate eta **Aramaioko**
partaideok, eman azken
errepasoa abestiari eta
koreografiari!

ENTSEGUAK

Otsailaren 29an eta
martxoaren 1ean, Kulturaten

IKUSKIZUNA

Martxoaren 7an eta **8an**,
Amaia Antzokian.

**Animatu eta etorri neska-mutikoekin
kantuan eta dantzan egitera!**

Informazio gehiago: 943 25 05 05 / 688 69 00 04
<https://goiena.eus/bereziak/kantari-7-aldia>



goiena